


BEHATXUL[📷]TIK

Juantxo EGAÑA



PILAR LARRAÑAGA ETA CARMEN IRAZUSTA, NAZIOARTEKO BOBSLEIGH LEHIAKETAN

1910eko urtarrilaren 22an, larunbata, Ski Club Tolosanoko bazkide talde bat Pirinioetako Eaux-Bonnes eski estaziora joan zen nazioarteko eski eta bobsleigh lehiaketa batean parte hartzera. Espedizioarekin batera, Donostian argitaratzen zen “Novedades” aldizkari grafikoko Toribio Noain argazkilaria zegoen. Nazioarteko lehia horretan, Norvegiako, Suitzako eta Italiako ordezkariak parte hartu zuten, besteak beste, eta euskal taldeko Gustavo Aasek hirugarren saria lortu zuen. Sari banaketan, eta garaiko prentsak jaso zuenez, euskal ordezkaritzak zortziko bat dantzatu zuen eta hainbat abesti abestu zituen. Bidaia honek eta nazioarteko lehiaketan parte hartzeak Ski Club Tolosanoren papera indartu zuten, Euskal Herriko neguko kirolen sustapenean aitzindari izan baitzen, baita “Novedades”-en garrantzia ere, ekitaldi horiek jaso eta zabaldu zituen bitarteko grafiko gisa. Urte hartako urtarrilaren 30eko “Novedades” aldizkariaren azalean agertu zen argazkian, bobsleigh lehiaketan parte hartu zuten euskal kirolarietako bi ikus daitezke: Irungo Pilar Larrañaga eta Tolosako Carmen Irazusta. Argazkia “Urcabe” izenarekin sinatua zegoen, horixe baitzen Toribio Noain argazkilari oiartzuarrak erabiltzen zuen ezizena.

TORIBIO NOAIN «URCABE». KOLDO MITXELENA KULTURUNEA.